

Pako-Pakok Azkoitiko kontu asko dakizki, baina ez denak. Izan ere, ezinezkoa da gogoan izatea hainbeste gertakari, pasadizo eta herriko pertsonairen izenak.

Horregatik, kontatu Azkoitiko pasadizo bat, gertaera bat edo erakutsi etxean duzun argazki zahar hori **Pako-Pakori**. Herritarrok bidalitako gutunak eta argazkiak ere tarte honetan argitaratuko dira hemendik aurrera.

Kontatu Pako-Pakori:

- Kultura bulegoan, udaletxeko 3. solairuan.
- kultu@azkoitia.net-en bidez.

Pako-pako quiere recopilar fotografías e historias antiguas del municipio. Envíale las tuyas al: Departamento de Cultura (3º piso del ayuntamiento) o a kultu@azkoitia.net.

kontatu
pako-pakori!



Pako-Pako

eskerrik
asko!



Azkoitiko ondarea ezagutzeko bisita gidatuak, Aste Santuan.

- **Martxoak 28** (osteguna). Santa Maria La Real parrokia ezagutzeko bisita. 12:00etan.
- **Martxoak 29** (ostirala). Azkoitiko gune historikoa ezagutzeko bisita. 12:00etan.

Ezkutuko altxorak ezagutzeko bisitak

Ezkutuko altxor ugari ditu Azkoitiak. Eraikin eta gune askoren atzean historia handiak eta txikiak gordeta daude, herritar zein kanpotar askok ezagutu ere egiten ez dituztenak, eta horiek argitara atera nahi ditu eskualdeko turismo garapeneko agentziak. Horregatik, bisita gidatuak antolatu ditu, herritar zein turistentzat. Ez dira, nolana hiko bisitak izango, gainera: Juan Bautista Mendizabal Azkoitiko kronista ofizial eta Euskalerrriaren Adiskideen elkarteko Gipuzkoako lehendakariak egingo ditu gida lanak, herriko historia eta gertaera bitxiak azalduz.

Aste Santuan bi bisita izango dira: bata, ostegunean, Santa Maria La Real parrokia ezagutzeko, eta bestea, ostiralean,

Azkoitiko Gune Historikoa ezagutzeko. Bisita horietan parte hartzeko aurretik egin behar da erreserba (943 851 100 edo info@tierraignaciana.com). Ekainera bitartean bisita gehiago ere egongo dira. Informazio gehiago: www.tierraignaciana.com.

Iraurgi Lantzen ha organizado varias visitas turísticas para dar a conocer el patrimonio histórico del municipio; visitas que estarán guiadas por el cronista oficial de Azkoitia, Juan Bautista Mendizabal. Dos de esas visitas se realizarán en Semana Santa: una el 28 de marzo y la otra el 29. Para acudir a ellas, es necesario reservar con antelación (943 851 100 o info@tierraignaciana.com).